

Gaztelekuan
EUSKARAZ



Nerabeentzako Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen

HEZITZAILEENTZAKO GIDA

Gaztematika

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema


www.gipuzkoangazte.eus

2017ko iraila

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. Euskararen erabilera Nerabe Zerbitzuetan: Zertarako sustatu? Zer hartu kontuan?..... | 5 |
| 2. Helburuak eta oinarrizko estrategiak | 8 |
| 3. Jarduerak eta tresnak | 13 |
| 4. Motibazioan eragitera begirako jarduerak | 21 |
| 5. Egoera zehatzak eta zalantzak | 26 |
| 6. Zerbitzuarekin lotura duten beste agente edo eragileei begirako irizpideak | 30 |
| 7. Ebaluazioa eta jarraipena | 33 |
| 8. Erreferentziak | 37 |
| 9. Eranskinak | 38 |

Nerabeen onurarako izango da Nerabe Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzea. Erabilera sustatzearen ardura hezitzaileok dugu; guk lagundu behar diegu euskara erabiltzen eta horretan gustura aritzen. Horretarako, Hezitzaile Berritsuak izaten ahalegindu behar dugu eta jardueraren uneak zein guneak baliatu ditzakegu tresna lagungarri moduan.



1. EUSKARAREN ERABILERA NERABE ZERBITZUETAN: ZERTARAKO SUSTATU? ZER HARTU KONTUAN?

- 1.1. Zertarako sustatu euskararen erabilera Nerabe Zerbitzuetan ?
- 1.2. Zein oinarri hartu abiapuntu moduan?
- 1.3. Nola uztartu beste bi zehar lerroekin?

1.1. Zertarako sustatu euskararen erabilera Nerabe Zerbitzuetan?

Euskara eskolaz kanpo erabiltzeko benetako aukerak eman behar dizkiegu eta hizkuntzarekin harremana zaindu behar dugu.


Gipuzkoako gizartea gero eta elebidunagoa da. Azken hamarkadetan ahalegin handia egin da norabide horretan eta gaur egun haur zein nerabe gehien gehienak bi hizkuntzak ikasten ari dira, elebidunak izatera iritsiz.

Baina bai elebitasunera begira eta, batez ere, erabilera soziala indartzera begira, kontuan izan behar da euskara hizkuntza minorizatua dela eta horrek hainbat ondorio dituela:

- Hainbat haur eta neraberen kasuan eskolaz kanpo euskara erabiltzeko benetako aukerak ez dira asko, aukera hori mugatua da eta horrek eragina du gaitasunetan zein jarreretan. Hau da:
- Erraztasun handiagoa baldin badute gaztelaniaz, ohikoa da gaztelaniarako joera izatea beraien harremanetan. Beraz, euskara erabiltzen laguntzen badiegu, gero eta gaitasun hobea izango dute hizkuntza horretan ere.
- Haur garaietatik beraien arteko harremanetan gaztelaniarako joera izan duten neraberen kasuan, beraien arteko harremanak eta hizkuntza ohiturak gaztelaniaz finkatuta dituzte. Honek ondorio bat du: eskolaz kanpo euskara erabiltzea eta, bereziki, lagunartean euskara erabiltzea arrotza edo arraroa egiten zaie askori. Nerabe Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatuz gero, edozein egoeretan eta edozein harremanetan euskaraz eroso aritzeko gai izan daitezen lagunduko diegu.

- Euskaraz ikasi arren eskolaz kanpo euskararekin harreman gutxi baldin badute, horrek eragina izango du beraien jarreretan: euskararekiko harremana zaintzen lagundu diezaiekegu Nerabe Zerbitzuetatik. Noski, harreman horrek positiboa izan behar du eta erabiltzen ditugun estrategietan hau kontuan izan behar dugu.
- Beste hainbat haur eta nerabek eguneroko harremanetan euskara asko erabiltzen dute, eskolan eta eskolaz kanpo, lagunartean eta beste hainbat harremanetan. Kasu hauetan, euskararen egoera sozialak bi norabidetan behintzat eragiten die:
 - Euskaraz egiteko ohitura ez dutenekin biltzean (zerbitzuan bertan zein zerbitzutik kanpo) ohikoena harremanak gaztelaniaz izatea da. Hori da helduen aldetik jaso dutena eta hori izan da ohiko jokabidea urteetan. Hizkuntza-arau horren aurrean nerabeak ahalduntzeko urratsak eman daitezke Nerabe Zerbitzuetan.
 - Euskara eta euskal identitatea barneratzeko sozializazio prozesuan hainbat hutsune izaten dituzte eta horrek eragina du euskararekiko ikuspegian eta jarreretan: hizkera informalean baliabide falta, erreferente gutxi, euskara balio indartsuekin ez lotzea (modernoak, etorkizunekoak, eta abar). Nerabe Zerbitzuak gune eta jarduera egokiak dira arlo horien inguruko baliabideak eskaintzeko.

Bide honetan aurrera egitea gizarte osoaren eta bereziki haur eta nerabeen onurarako izango da, hizkuntzen berdintasunean eta justizia sozialean aurrera egingo baitugu.



1.2. Zein oinarri hartu abiapuntu moduan?

Hezitzaileon arduraz eta jarreraz ari gara, Hezitzaile Berritsuak izan behar dugu.

Hezitzaileon ardura da euskararen erabilera sustatzea. Guk nahi dugu beraiek euskara asko eta gustura erabiltzea eta, beraz, horretan lagundu behar diegu. Nerabeen jokabideak ulertu behar ditugu eta argi izan gaztelaniarako joera dutenen kasuan hori ez dela ez ona ez txarra baina guk euskara erabiltzen lagundu nahi diegula.

Bide horretan, Hezitzaile Berritsuak izaten ahalegindu beharko dugu: elkarrizketa asko sortu eta bideratzeko ahalegina eginez –banakoekin eta elkarren artekoak–. Jarrera horretatik abiatuz, jardueraren uneak eta guneak baliatu ditzakegu euskararen erabilera indartzeko eta horretan gustura aritu gaitezke.

1.3. Nola uztartu beste bi zehar lerroekin?

Euskararen erabilera sustatzeko erabiltzen ditugun estrategiek bat egin behar dute Nerabe Zerbitzuetako beste bi zehar lerroekin: inklusioarekin eta genero ikuspegiarekin alegia.

Inklusioari dagokionez, hizkuntza ez da inor jardueratik baztertze arrazoia izango baina oso kontuan hartuko dira jardueran finka litezkeen erabilera helburuak eta garatuko diren estrategiak. Izan ere, bi faktore horiek (helburuak zein estrategiak) faktore inklusibo laguntzaile izan baitaitezke.

Generoari dagokionez, ezin ahantz dezakegu hizkuntza bera genero berdintasuna garatzeko tresna baliagarria dela. Euskarak artikularen bidez emakumezko zein gizonezkoen arteko alderik egiten ez duen arren, badaude hainbat aspektu generoz tindatua daudenak eta horien gainean hausnartzea merezi du. Beraz, eman diezaiozun garrantzia euskarari eta balia dezagun eskaintzen digun lantresna hori: estrategiak zehazterakoan mezu motei adi aritu beharko dugu."

Alegia, euskararen erabilera lantzea baliagarria eta bateragarria da inklusioa zein genero berdintasuna lantzeko, baina ez genuke beste bien gain lehenetsi behar; erabilera sustatzerakoan jarduera bat oso eraginkorra izan daitekeela ikusi arren, jarduera horrek ez badu beste bi zehar lerroekin bat egiten, hobe da jarduera moldatzea edo beste bideren bat lantzea.

2. HELBURUAK ETA OINARRIZKO ESTRATEGIAK

- 2.1. Erabilera sustatzea eta hezitzaileen ardura
- 2.2. Helburu orokorretatik helburu zehatzetara:
Zein da gutxieneko helburua?
- 2.3. Oinarrizko estrategiak eta prozedurak

2.1. Erabilera sustatzea eta hezitzaileen ardura

Beraien artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin lagundu behar diegu eta horretan gustura aritu daitezten lortu.

Euskararen erabilera sustatzen ahalegintzea garrantzitsua da, partaideentzat onuragarria izanik. Baina erabilera sustatzeaz ari garenean argi izan behar dugu zein den hezitzaileen ardura. Hori argi badaukagu, zer eta nola egin ere argiago ikusiko dugu.

Zein da hezitzaileen ardura?

- Parte hartzaileek hezitzaileekin harremana euskaraz izan dezaten laguntzea.
- Beraien artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin laguntzea.
- Euskararekin bizipen positiboak izan ditzaten eta euskara balio indartsuekin lotu dezaten laguntzea.

Nerabe Zerbitzuaren testuinguru soziolinguistikoaren arabera, erabilera helburuak bat edo beste izango dira, baina Nerabe Zerbitzuetako hezitzaileen ardura berdina da kasu guztietan.

Agian gustatuko litzaiguke nerabeen arteko harremana euskaraz izatea baina hori lortzea ez da hezitzaileen ardura. Testuinguruaren arabera helburu hori handiegia izan daiteke euskararen erabilera sustatzera begira Nerabe Zerbitzuak mugak dituelako: gazteek jardueran ematen duten denbora mugatua da eta hezitzaileen eragina ere mugatua da (partaide kopurua handia izaten da tarte batzuetan, jolas librean ere aritzen dira, eta abar).

Hainbat neraberi eskolaz kanpo euskaraz egitea arrotz egiten zaie. Beraien testuinguruan gaztelania baita nagusi (askorentzat beste hizkuntzaren bat ere bai), eta elkarri euskaraz egiteko ohiturarik ez dute. Beraz, ez dute benetako aukerarik euskara erabiltzeko. Horretan laguntzen badiegu, euskaraz aritzeko gaitasuna ere hobetuko dute eta hori beraien onurarako izango da: bai ikasketetarako baina, batez ere, bi hizkuntza ofizial dituen gizarte batean gizarteratzeko eta bi hizkuntza horiek edozein egoera zein harremanetan erabiltzeko gai izatera iristeko.

Are gehiago, hainbatek euskara eskolarekin soilik lotzen dute eta euskarazko bizipen gutxi dituzte. Nerabe Zerbitzuen izaera ludikoak horretan ere lagundu dezake: euskaraz bizipen positiboak eskaintzen badizkiegu, euskararekin duten harremana hobetzen da eta horrek eragina du jarretan zein jokabideetan.

2.2. Helburu orokorretatik helburu zehatzetara: Zein da gutxieneko helburua?

Gutxieneko helburuak zehaztu behar ditugu, hori izango baita estrategia egokiak aukeratzeko abiapuntua.

Hauek izan daitezke helburu egokiak:

- Hezitzaileekin harremana euskaraz izatea.
- Beraien artean euskaraz aritzeko ohitura ez dutenen kasuan:
 - Partaideen artean euskaraz egitea hezitzaileok beraiekin elkarrizketatan ari garenean.
 - Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean jarduera babestu edo antolatuetan.
- Beraien artean euskaraz aritzeko ohitura dutenen kasuan:
 - Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean edozein egoera eta tartetean.
 - Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea jarduera babestu edo antolatuetan.
 - Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea edozein egoera eta tartetean.

Nerabe Zerbitzurako gutxieneko helburuak finka ditzakegu. Testuinguru soziolinguistikoa eta egungo errealitatea hartu behar dira oinarri moduan, helburuek lorgarriak izan behar dutelarik: batzuetan erraz lortzeko modukoak izango dira eta beste batzuetan, aldiz, kosta egingo da. Hezitzaileen jarrera eta erabili beharreko estrategiak zein tresnak helburu horiekin lotu behar ditugu.

Komenigarria da Nerabe Zerbitzurako gutxieneko helburuak zehaztea: helburu orokorretatik zaila baita estrategia egokiak eta hezitzaileok hartu beharreko jarrera zehaztea. Helburu moduan *euskararen erabilera sustatzea* jarriz gero, zein tresna zehatz erabili ez dugu argi edukiko eta gure lana baloratzeko ere ez dugu neurgailurik izango. Ondorioz, askotan etsigarria izaten da hezitzaileen lana: gutxi gorabeherako helburu bat buruan edukiz gero, hainbatetan gehiegizkoa, zaila egiten zaigu jarrera eta sententzio positiboetatik lan egitea.

| Egoera | Gutxieneko helburuak |
|---|--|
| Ez digute beti euskaraz egiten eta gu beraiekin ari garenean zaila da beraien arteko elkarrizketak euskaraz izatea. | <ul style="list-style-type: none"> - Hezitzaileekin harremana euskaraz izatea. - Partaideen artean euskaraz egitea hezitzaileok beraiekin elkarrizketatan ari garenean. |
| Euskaraz egiten digute baina gu beraiekin ari garenean kosta egiten da elkarrizketak euskarara eramatea. | <ul style="list-style-type: none"> - Partaideen artean euskaraz egitea hezitzaileok beraiekin elkarrizketatan ari garenean. |
| Euskaraz egiten digute eta gu beraiekin ari garenean euskaraz egiten dute baina beraien kabuz ari direnean hainbati kosta egiten zaie euskara mantentzea. | <ul style="list-style-type: none"> - Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean jarduera babestu edo antolatuetan. |
| Euskaraz egiten digute eta beraien artean ere euskaraz aritzeko ohitura dute gehienek. | <ul style="list-style-type: none"> - Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean edozein egoera eta tarteetan. |
| Beraien arteko harremanetan euskaraz egiteko ohitura dutenak eta ez dutenak elkartzean, erdarara jotzen dute | <ul style="list-style-type: none"> - Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea jarduera babestu edo antolatuetan. -Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea edozein egoera eta tarteetan. |

Hizkuntza-ohiturei dagokionez Nerabe Zerbitzuko partaideen ezaugarriak nahiko homogeenak baldin badira, gutxieneko helburu bakarra aukeratzea da egokiena. Aldiz, partaideen ezaugarriak anitzak direnean, bat baino gehiago aukeratu beharko dira, baina bi baino gehiago hartzen badira horrek estrategiak zehaztea zailduko du. Honakoa da gomendioa:

- Kontuan izan nerabe taldeen arteko harremana nolakoa den.
- Hizkuntza-ohitura ezberdinak dituzten taldeak hainbatetan elkarrekin aritzen badira, helburu bat jarri gutxien erabiltzen dutenei begira eta bestea elkarrekin ari direnean duten harremanari begira.
- Hizkuntza-ohitura ezberdinak dituzten taldeen artean harremana txikia bada, gutxieneko bi helburu bereizi aukeratu: bat batzuentzat eta bestea besteentzat.

2.3. Oinarrizko estrategiak eta prozedurak

Oinarrizko estrategia hezitzaileok hartu beharreko jarrerari buruzkoa da eta jarrera hori prozedura zehatz batekin lotu dezakegu.

Oinarrizko estrategia: Hezitzaile Berritsuak izatea.


Prozedura: ahalegina eskatzea (gure helburua eta nahia azaltzea), laguntzea eta ahalegina baloratzea.

Hezitzaile Berritsuak: elkarrizketa asko sortzen eta bideratzen dituzten hezitzaileak dira -banakoekin eta beraien artekoak-. Zenbat eta elkarrizketa gehiago sortu eta zenbat eta elkarrizketa gehiagotan parte hartu, orduan eta gehiago lagunduko diegu euskara erabiltzen. Hori da gutxieneko helburura hurbiltzeko bidea.

Hezitzaile Berritsu moduan ari garenean erabiltzeko prozedura:

- Gure helburua eta nahia azaltzea: euskara erabiltzea nahiko genukeela azalduko diegu. Horri begira, mezu egokiak erabili behar dira.
- Laguntza eskainiko diegu: zailtasunak dituenari lagundu egingo diogu euskaraz aritu dadin.
- Ahalegina baloratuko dugu: errefortzu positiboak emango dizkiogu zailtasunak dituenari euskaraz adierazteko ahalegina egiten badu, beraien artean euskaraz egitea lortzen badugu nahiz eta horretarako gure eragina beharrezkoa izan, eta abar.

| Gure helburua eta nahia adierazten | Laguntza eskaintzen | Errefortzuak ematen |
|--|--|---|
| Saiatu zaitetz nirekin euskaraz egiten. Ziur euskaraz ere primeran egiten duzula. | Nik lagunduko dizut nahi duzuen adierazten. Lasai esan dakizun moduan. | Primeran. Horixe nahi nuen. Ederki egiten duzu euskaraz ere! Bai horixe! |
| Zuen gustukoa den jarduera hau egingo dugu orain. Baina badakizue euskaraz egitea nahiko genukeela. Saiatu horretan! | Ni ere zuekin arituko naiz. Laguntzeko prest nago. Gainera, badakizue honetan oso ona naizela! | Oso ondo aritu zarete. Eta euskara asko entzun dut gainera. Horrela bikain! |



3. JARDUERAK ETA TRESNAK

- 3.1. Nerabe Zerbitzuaren espazioan bertan:
 - 3.1.1. Jardueraren uneak eta guneak baliatzea
 - 3.1.2. Dinamizatutako jarduerak egokitzea
 - 3.1.3. Tresna lagungarriak
- 3.2. Nerabe Zerbitzuaren espaziotik kanpo

3.1. Nerabe Zerbitzuaren espazioan bertan:

Euskararen erabilera indartzeko lagungarria da jardueraren une eta gune ezberdinetan Hezitzaile Berritsu moduan nola jokatu aurreikustea eta planifikatzea.

3.1.1. Jardueraren uneak eta guneak baliatzea

Jardueraren uneak eta guneak baliatu daitezke Hezitzaile Berritsu moduan jokatuz erabilera helburuetara iristeko.


- Harrera eta agurra: banakoekin elkarrizketak sortzeko aproposa. Batzuetan elkarrizketa oso laburrak izango dira baina hezitzaileak aukera ikusten duenean nahiko elkarrizketa luzeak ere sortu daitezke eta egoera aproposak dira prozedura erabiltzeko.
- Jarduera librea: beraien kabuz ari diren tarteak dira, askotan taldeka ariko dira eta batzuetan banaka ere bai. Banakoekin elkarrizketak sortzeko erabil ditzakegu (egiten ari direnari buruz galdetuz edo elkarrizketa bat sortzeko egokia izan daitekeen beste edozein gairi buruz) eta, tarte batean beraiekin batera aritzeko aukera ikusten badugu, beraien arteko elkarrizketetan euskararen erabilera indartzeko ere egokia izan daitezke.
- Tailerrak: aurreko puntuaren antzera, banakoekin hainbat elkarrizketa sortzeko oso aproposak dira, eta tailerraren

ezaugarrien arabera, beraien arteko elkarrizketetan eragiteko ere egokiak dira (elkarri azalpenak emateko eskatuz, adibidez).

- Jarduera dinamizatua: beraien arteko hainbat elkarrizketa euskaraz izan daitezen lortzeko egokia. Jarduera dinamizatuan hezitzailearen rola oso aktiboa da eta elkarrizketa asko sortu edo bideratu ditzake.

Ezingo dugu guztiekin eta etengabe saio osoan zehar Hezitzaile Berritsu moduan aritu. Baina argi izan behar dugu hori dela euskara gustura erabiltzen laguntzeko bidea eta jardueraren uneak zein gunek baliatzea bide eraginkorra dela.


| Harrera | Jarduera librea | Tailerra | Jarduera dinamizatua |
|---|--|--|---|
| Kaixo. Atzo lokalean ospatu behar zenuten urtebetetzea, ondo? Zer oparitu zenioten Leireri? ... | <p>Mahai tenis txapelketa abian da! lazkoa oso erraza izan zela ikusirik, aurtien arauak zaildu ditugu: bikotekide batek esku bat bizkarrera lotuta izango du.</p> <p>Zer moduz ari zarete? Galdu egin al duzue zuek biok? Baina berriz jokatzeko aukera baduzue ezta? Zaila al da horrela aritzea?...</p> | Sukaldaritza tailerra tokatzen zaigu gaur. Norbaitek egin du noizbait Hummusik? Zure etxean bai? Nola egiten duzue, ziur gure errezeta baina goxoagoa dela, esan-esan! ... | <p>Pelikula bat ikusiko dugu eta ondoren debatea egingo dugu.</p> <p>Zer iruditu zaizue pelikula? Taldeka jarri eta landu zuen iritzia.</p> <p>Ondoren eztabaida egingo dugu. Zein izango da moderatzailea? Ados. Nik ere parte hartu nahi dut eta lagunduko dizut. ...</p> |



3.1.2. Dinamizatutako jarduerak egokitzea:

Hezitzaileak dinamizatzen dituen jardueretan, prozedura bat kontuan hartzen bada, errazagoa da beraien artean euskara erabil dezaten laguntzea. Honakoa da prozedura hori:

- Beraien artean hizkuntza-erabiltzea ezinbestekoa izatea: jarduera egokitu behar da hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izan dadin. Beraien artean zerbaitetaz hitz egin behar dute, hitz egindakoa beste batzuei azaldu behar diete eta, hori guztia, idatzi gabe egin behar da.
- Gure eraginez laguntzea: beraien kabuz aritu behar dute eta hezitzaileak parte hartze aktiboa izango du jarduerarekin lagunduz zein elkarrizketa askotan parte hartuz.
- Ahalegina eskatzea edo gutxienez gure helburua edo nahia azaltzea: horretan ari denean lagungarria izan daiteke euskara erabiltzeko ahalegina ikusi nahi duela edo euskaraz egitea nahi lukeela azaltzea. Hezitzaileak ahalegina eskatu ahal izateak nerabeen erabilera indartzeko balioko luke eta errefortzu positiboak eman ahal izatea ere erraztuko luke. Honi begira, behar bada aurretik motibazioarekin lotutako jardueraren bat egitea baliagarri izan liteke.



Dinamizatutako jarduerak

Gazteen Batzordea osatua dugu Nerabe Zerbitzuaren egitasmoa adosteko eta jarduerak antolatzeko. Batzorde edo asanblea horietako batean ekintza berezi bati buruz hitz egin nahi dugula azalduko diegu:

1.- Jarduera azaltzea: *“Datorren hilabeteen txango berezi bat egingo dugu baina ez dugu erabaki nora. Denon artean aukeratu behar dugu. Gure aukerak: hondartza, Txuri Urdin, Topic, Izarraitz. Talde bakoitzak bat aukeratu behar du eta zergatik aukeratzen duzuen hori ondo pentsatu besteei azaltzeko, eta besteak eta gu konbentzitzeko”.*

2.-Ahalegina eskatzea: *“nahiko genuke horretan ari zaretenean euskaraz egitea. Badakizue nahi dugula zuek euskara asko erabiltzea eta tarte honetan behintzat ahalegindu”.*

3.- Jardueraren lehen zatia: taldeka ideiak lantzen ari direnean hezitzaileak taldez talde ibiliko gara galdetzen eta ideiak ematen. Gure parte hartze zuzenarekin elkarrizketak euskaraz izan daitezzen lagunduko diegu. Beharrezkoa bada, ahalegina eskatuko diegu taldetxoei.

4.- Jardueraren bigarren zatia: talde bakoitzak besteei aukeratutakoa eta arrazoiak azaldu behar dizkiete. Moderatzaile bat jar dezakegu eta guk laguntzaile papera hartu. Bozketa moduko batekin amaitu daiteke.

5.- Ahalegina baloratzea: dinamika bera baloratuko dugu, eta bereziki euskararen erabileran ikusi dugun ahalegina. *“Primeran aritu zarete. Guztion artean txangoa aukeratu dugu. Eta oso pozik gaude euskara asko entzun dugulako eta badakigulako batzuek erdaraz askoz errazago egiten duzuela. Oso ondo.”*

Nerabe Zerbitzuetako programazioa lantzen denean modu honetako jarduerak planifikatu daitezke.

Atal honekin lotuta adibideen bilduma bat ere osatu da: *Dinamizatutako jarduerak egokitzea adibideak izenekoa*. Bertan Nerabe Zerbitzuetarako baliagarriak izan daitezkeen adibideak txertatu dira.

3.1.3. Tresna lagungarriak:

Hainbat jarduerak bere baitan dute hizkuntzaren erabilera eta horiek ere lagungarriak dira euskararen erabilera bermatzeko edo indartzeko:

- **Eguneroko errutinak:** egunero (edo maiztasun nahiko handiz) errepikatzen diren egoeretan hizkuntza-errutinak txerta ditzakegu. Tresna lagungarria da euskararen presentzia bermatzeko eta egoera horien inguruko elkarrizketak euskaraz izan daitezen laguntzeko.

| Harrera | Baimena eskatzea |
|---|--|
| Hezitzailea beti galdera berarekin hasiko da eta Nerabe Zerbitzura datozen ahal den gehienekin: <i>Arratsaldeon! Gogotsu al zatozte?</i> Beti eskatuko die erantzuna. Erantzunak aukera ematen badu elkarrizketa luzatuko du. Erantzunak ez badu aukerarik ematen (<i>Bai-Ez</i> modukoa bada), berak ikusiko dugu galdera gehiagorekin luzatzen saiatu edo ez. Baina beti modu berean hasteak lagunduko dio egoera horietan elkarrizketa sortzen. | Nerabeek aukera dute hainbat jarduera egiteko eta hainbat gunetan aritzeko. Horietako batzuen kasuan, erabiltzeko baimena eskatu behar dute. Adibidez: bideojoko edo ordenagailu bat erabiltzeko. Kasu horretan, hizkuntza-errutina bat betetzeko eskatuko diegu. Adibidez: <i>Txanda bila nator</i> . Txanda bila, zertarako? <i>Bideojoko horretan aritzeko</i> . Honen ondoren, hezitzaileak aukera du baimena eman edo ukatzeko, baina baita galdera gehiago eginaz elkarrizketa luzatzeko ere. |

- **Dinamika eta jolasetako hizkuntza-errutinak:** eguneroko errutinen moduan, dinamika eta jolas gidatuetan ere txertatu ditzakegu hizkuntza-errutinak. Modu horretan, egoera horietan euskararen gutxieneko presentzia bermatuko dugu eta errazagoa izango da elkarrizketak euskaraz izan daitezen laguntzea.

| Mahai tenisa | Debateak |
|---|---|
| <p>Tartean behin mahai tenis lehiaketak antolatuko ditugu. Hoberena aukeratzea baino dibertigarria izatea nahi dugu, eta horretarako ezaugarriak aldatuko dizkiogu eta hizkuntza-errutinaren bat txertatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hirukoteka izango da eta txandaka eman behar diote pilotari: batek eman, mahaian pala utzi, eta beste taldekoek erantzuten dutenerako bigarrenak pala hartu eta bera prest egon emateko... - Lehiaketa 3 set egitera izango da eta bakoitzak 4 joko izango ditu. Talde batek joko bat irabazten duen bakoitzean kideek esaldi bana errepikatu behar dute: <i>1-Nork irabazi du joko?</i> <i>2-Guk irabazi dugu joko?</i> <i>3-Bai, guk irakazi dugu joko!</i> Jokoa irabazi eta hurrengo puntua hasi aurretik ez badituzte hiru esaldiak esaten, beste taldeak kargu har diezaieke eta joko hori gabe utzi. | <p>Pelikulak ikusten ditugunean debateak antolatzen ditugu, baita gai bat lantzerantz Nerabe Zerbitzutik kanpoko pertsona bat ekartzen dugunean ere.</p> <p>Debate horietan moderatzaile bat jarriko dugu. Moderatzaileari eskatuko diogu eztabaidak beti modu berean abiatzeko eta hizkuntza-errutina batzuk betetzeko: <i>Nork eman nahi du iritzia? Nork uste du horrela izan behar duela? Nor dago ados?</i> Modu horretako lau edo bost esaldi ikasi behar ditu eta beti erabili hitza eman aurretik.</p> <p>Debatea egin aurretik gaia taldeka landu badute, egokia izan daiteke taldeetan ere rolak banatzea: idazkari bat eta bozeramaile bat izendatzea adibidez. Bozeramaileak ere hizkuntza-errutinaren bat errespetatu beharko du: <i>Guk emango dugu iritzia. Gu ez gaude ados.</i> Eta abar.</p> <p>Horrelako egoeretan hizkuntza-errutina egokiak erabiltzen badira lagungarriak izan daitezke debatea bera ondo bideratzea eta eztabaida aberatsak errazteko. Aldiz, gehiegizko errutinak edo desegokiak badira dinamika oztopatu dezakete.</p> |

- **Hizkuntza-jolasak:** hizkuntza bera ardatz duten dinamikak proposatu ditzakegu, hau da, jolasa egiteko ezinbestean hizkuntza erabili behar da. Gustukoak badituzte, beraien kabuz ere erabiliko dituzte.


| Maite zaitut! | Boterik gabeko pilota |
|---|--|
| <p>Zutik borobilean jarri. Borobilaren erdian pertsona bat geratuko da eta taldeko edozeinen aurrean jarrita esango dio:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Maite zaitut! - Zergatik? - Galtza luzeak dauzkazulako! <p>Une horretan, borobileko galtza luzedun denek euren lekua utzi eta beste bat bilatu beharko dute, baita erdian zegoenak ere. Erdian lekurik gabe geratu denak, jolasari ekingo dio berriz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Maite zaitut! - Zergatik? - Ile motza daukazulako. <p>Errutinak aldatzen joan gaitezke: Mugi zure lekutik, zergatik? begi urdinak daukazulako! / Zurekin tematu naiz! Zergatik? kamiseta beltza daramazulako!...</p> | <p>Baloia duenak norbaiten definizioa emango du: <i>praka gorriak dauzka eta saskibaloian oso ona da!</i> eta baloia gora botako du. Definitua izan dena baloia botea eman aurretik jasotzen saiatuko da. Boterik gabe hartzen badu: <i>denak geld!</i> esan eta dagoen tokitik hiru pauso emanez, norbait baloiaz joko du. Jotakoa jokuz kanpo geratuko da. Baloia botea eman ondoren hartzen badu, ordea, beste norbaiten definizioa eman, baloia gora jaurti eta aurrera jarraituko du jokuak, irabazle bat atera arte.</p> |

- **Girotzea:** Nerabe Zerbitzuko espazioan girotze lana egitea ere lagungarria da euskararen presentzia bermatzeko.
- **Abestiak edo abestutako leloak:** hezitzaileok asko abestea eta nerabeekin abestea. Hizkuntzaren presentzia zaintzeko bide bat da eta hizkuntza erabiltzeko eta barneratzekoa ere bai. Abestutako leloak ere oso erabilgarriak dira, hots: hizkuntza-errutina modukoak baina abestuz egiten direnak.
- **Musika:** hainbat egoeretan musika ere jar dezakegu. Hizkuntzaren presentzia zaintzeko modu bat da eta, horrekin batera, nerabeek abesti ezberdinak ikas ditzakete baita talde ezberdinak ezagutu ere. Interesgarria da nerabeei euskarazko musika erreferente eta estilo ezberdinak proposatzea eta ezagutaraztea.
- **Hizkuntza-paisaia:** kartelak, arauak eta abar. Nerabe Zerbitzuan paretetan jartzen diren esaldiak. Tresna lagungarria izan daiteke asko erabiltzen badugu, erreferentzi egiten badiegu eta maiz aldatzen baditugu.

3.2. Nerabe Zerbitzuaren espaziotik kanpo:

Hainbatetan Nerabe Zerbitzuaren espaziotik kanpo jarduerak egiten dira. Jarduera horietan ere guneak eta uneak baliatu ditzakegu Hezitzaile Berritsu moduan jokatzuz nerabeen euskararen erabileran eragiteko.

| | |
|-------------------------------------|--|
| Talde jolasak | Herrian bertan edo txangoetan egiten diren talde jolasetan: <ul style="list-style-type: none">- Hizkuntza-errutinak txertatu- Abestiak erabili |
| Txangoak (natura, mendia...) | Txangoetan, kontuan izan: <ul style="list-style-type: none">- Hezitzaile Berritsuak izan: elkarrizketa asko sortu eta elkarrizketa askotan parte hartu. Hizkuntzari dagokionez hezitzaileek jarrera aktiboa izan behar dute.- Bidaetan musika jarri eta abestu.- Ibilaldietan, hezitzaile berritsuak izan eta, hortaz gain, abestu eta abestu dezaten animatu.- Bisita gidatuak eginez gero, aukera dagoenetan, euskarazko bisitak hartu. |



4. MOTIBAZIOAN ERAGITERA BEGIRAKO JARDUERAK

Euskararekiko motibazioa ardatz duten jarduerak garatzea Nerabe Zerbitzuan euskararen erabilera indartzeko bide bat izan daiteke baina, batez ere, nerabeek euskararekin duten harremana indartzeko modu bat.


Motibazioan eragitera begirako jarduerak hizkuntzarekin harremana lantzeko bide izango dira:

- Euskararekin harreman ahula edo ez oso indartsua duten nerabeen kasuan: euskara beraiena egiten laguntzeko.
- Euskararekin harreman handia duten nerabeen kasuan: euskararen egoera soziala ulertzeko eta, hortik abiatuz, beraien hizkuntza-ohiturei begira lagungarriak izan daitezkeen tresnak eskaintzeko.

Motibazioari begira *Erabileran eragiten duten faktoreak* ardatz moduan hartzea proposatzen da.

Soziolinguistika Klusterrak *Gazteen euskararen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa* egin zuen eta hortik gida bat ere sortu zen *Erabileraren GPSa* deiturikoa (2011).

Nerabe Zerbitzuetan erabileran eragiten duten faktore horiek kontuan hartuz hainbat jarduera edo ekimen antolatu daitezke.



Hauek dira faktoreak eta hona hemen horiek ulertzeko azalpen labur bat:

| Gazteen euskararen erabileran eragiten duten faktoreak |
|---|
| Ama-hizkuntza: etxetik euskara jasotzea. |
| Ingurune hurbila: txikiak direnetik euskara asko entzuteko eta erabiltzeko aukera izatea etxean, ingurukoekin, kalean... |
| Bakoitzaren jarrerak: euskararen aldeko jarrera garatzea. |
| Hizkuntza-gaitasuna: egoera eta erregistro ezberdinetarako hizkera egokia eta aberatsa izatea. Lagunarteko harremani begira, bereziki gazte hizkeran nahiko baliabidek izatea. |
| Identitate kolektiboa: norbera ibiltzen den giro eta taldeetan euskararen aldeko jarrerak ikustea, euskara asko erabiltzen den gune edo jardueretan nork bere burua eroso ikustea... |
| Harreman sareetako hizkuntza-arauak: norbera ibiltzen den harreman sareetan euskarak leku handia izatea, euskararen erabilera zaintzen dela ikustea, hizkuntza-arauen oinarrian zer dagoen konturatzea, eta abar. |
| Pertsona eta talde erreferenteak: euskarazko erreferente asko izatea, bai pertsonai ezagunak (musikariak, kirolariak...) baita gertukoak ere (helduagoak diren herriko gazteak, hezitzaileak...). |
| Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa: euskara balio indartsu eta erakargarriekin ere lotzea (modernoak, indartsuak, etorkizunekoak...). |
| Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa: euskara eskolarekin soilik ez lotzea, inguruan gero eta euskaldun gehiago dituztela ohartzea, euskara leku eta egoera askotan erabil daitekeela eta gero eta gehiago erabiltzen dela ohartzea... |
| Kontsumo eskaintza: produktu eta zerbitzuak euskaraz eskura izatea (musika, bideo jokoak, eskola orduz kanpoko jarduerak, aldizkariak...). |
| Input mediatikoa: komunikabideetatik jasotzen dituzten mezuak euskarari dagokionez egokiak edo desegokiak izatea. |
| Testuinguru politikoa: legeak euskara biziberritzeko eraginkorrak izatea eta testuinguru horietatik jasotzen ditugun mezuak egokiak izatea (talde politikoen aldetik, adibidez). |

Haurrak direnetik faktore horiek guztiak beraiengan eragiten ari dira: sozializazio prozesuan hizkuntza-sozializazio bat ere ematen da. Horrek eragina du erabileran baina baita jarreretan ere: euskararekiko jarrerak indartsuak izango dira euskara balio indartsuekin lotzen badute, erreferente asko badituzte, inguruan asko entzuten badute, eta abar. Aldiz, ahulak izango dira horrek guztiak huts egiten badu, nahiz eta, adibidez, agian etxetik euskara jaso.

Nerabe Zerbitzuetan faktore horiek kontuan har daitezke eta programazioan txertatu ditzakegu beroietan eragitea helburu duen jarduerak. *Erabileran eragiten duten faktoreekin lotutako jarduerak eta hausnarketak* izeneko bilduman baliagarriak izan daitezkeen hainbat jarduera eta adibide jaso dira. Esaterako:


- Izaera ludikoa duten jarduerak
- Hausnarketa oinarri duten jarduerak

| | |
|--|--|
| Nerabe Zerbitzuan antolatzen diren jarduerak faktoreen ikuspegitik aztertzen. | Jarduera antolatuen bidez eragiten al da faktoreen batean/batzuetan? Zeintzutan? Zein jardueren bidez? |
| | Jardueretan aldaketa txikiak sartuz eragin al daiteke faktore hauetan? |
| <p>Adibidez: jardueran zehar musika jartzen da. Musika beraiek aukeratzen dute. Ez dute inoiz euskaraz jartzen.</p> <p>Aukera: musikaren aukeraketan hezitzaileok ere parte hartzea eta euskarak tarte duina izango duela bermatzea (agian beraiekin adostea). Euskarazko musika jartzerakoan aniztasuna bilatzea eta bereziki gaur egungoa jartzea. Modu horretan bi faktoretan eragiten ariko gara:</p> <ul style="list-style-type: none">– Erreferenteak: euskal taldeak.– Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa: euskaraz gauza asko eta oso ezberdinak sortzen direnaz jabetzea. | |


Erabilera eragiten duten faktoreetan eragitea helburu duten eta izaera ludikoa duten jarduerak programazioan sartzea

Adibideak:

- Hizkuntza-gaitasuna: hizkera informalaren inguruan behaketak egitea, euskarazko esamoldeak proposatzea eta hizkuntza-jolasak egitea.
- Erreferenteak: euskarazko abesti gustukoena aukeratzeko lehiaketa egitea eta talde horrekin lotutako norbait zerbitzura ekartzea.
- Kontsumo eskaintza: euskarazko aldizkarietara harpidetzak egitea, herrian edo inguruan euskaraz diren ekitaldien berri ematea, euskarazko telebista programa edo interneteko webguneei buruzko informazioa eskaintzea edo horien inguruan ekintzaren bat antolatzea...
- Ingurune hurbila: Nerabe Zerbitzutik kanpo egiten diren jardueretan euskarazko harremanak izan ditzaten zaintzea.
- Identitate kolektiboa: euskaraz diren edota euskararen aldekoak diren jardueretan parte hartzea eta, ahal bada, nerabeak eragile izan daitezela bideratzea.



| Erabileran eragiten duten faktoreetan eragitea helburu duten eta hausnarketa oinarri duten jarduerak programazioan sartzea | |
|---|--|
| Hausnarketarako jarduera txertatzea | <ul style="list-style-type: none">- Jarduera dinamizatu moduan erabileran eragiten duten faktoreen inguruko jarduerak txertatu ditzakegu. Hau da: hizkuntza-arauei buruzko, identitate kolektiboari buruzko edo egoera soziolinguistikoa erakiko gizarte pertzepzioari buruzko dinamikak landu ditzakegu eta jarduera moduan programazioan txertatu. |
| Egoerak baliatzea | <ul style="list-style-type: none">- Beste gai baten inguruko tailer edo lantegi bat egiten ari garenean, euskarari buruzko eztabaida edo elkarrizketa bat sortzeko baliatuko dugu. Adibidez: sukaldaritza tailerrean kultura ezberdinetako jakiak prestatzea proposatuko diegu. Horretan ari garenean, eleaniztasunaren inguruan aritu gaitzake (munduan zenbat hizkuntza hitz egiten diren, zenbat hizkuntzetako zerrenda osatzeko gai ote garen denon artean...) eta euskararekiko gizarte pertzepzioarekin lotutako mezua emateko baliatu dezakegu: euskara ez da ez txikia eta ez ahula. Munduko hizkuntzen artean bere tamaina oso arrunta da eta hizkuntza indartsua ez balitz gaur egun desagertuta egon zitekeen.- Adi ibiliko gara eta beraiek euskararen inguruko elkarrizketa bat sortzen dutenean edo komunikabideetan euskararekin lotutako gai bat pil-pilean dagoenean gaia baliatu eta mezu egoki batzuk emateko ahalegina egin dezakegu. |



5. EGOERA ZEHATZAK ETA ZALANTZAK

- 5.1. Batek ez daki euskaraz
- 5.2. Ez daki ondo
- 5.3. Ez du euskaraz egin nahi
- 5.4. Dinamizatu gabeko uneetan ez dute beraien artean euskaraz egiten
- 5.5. Beraien artean gaztelaniaz ari badira nola jokatu?
- 5.6. Erabilera arautzea egokia da?
- 5.7. Akatsak egiten badituzte zuzendu behar ditugu?

5.1. Batek ez daki euskaraz

Gerta liteke euskaraz ezer ez dakien neraberen bat jarduerara etortzea. Baina kontuan izan: kasu gehien gehienetan kanpotik etorri berriak diren gazteak dira. Euskaraz eskolaratuko dira eta laster hasiko dira ikasten. Beraz, euskara ez jakitetik euskara pixka bat jakiterako prozesu nahiko azkarra egingo dute. Nerabe Zerbitzuan ere horretan lagunduko diegu.

Lagungarriak izan daitezke:

- Azalpenak mantso eta keinuekin lagunduz ematea. Esaldi laburrak erabili, ulertu ote duen galdetu edo keinu bidez behintzat adierazteko eskaini eta galdera itxiak ere erabili.
- Hiztegi funtzionala (irudiduna) lantzea: Nerabe Zerbitzuan ohikoak diren esaldiak eta hiztegia landu berarekin. Une ezberdinak erabili horretarako: harreran agurrak, txoko batean aritu behar duenean gune horrekin lotutako lau edo bost hitz, eta abar.
- Hizkuntza-errutinak erabiltzea: egunero errepikatu behar diren esaldi batzuk aukeratu eta erabiltzen hasi. Lehen egunetan guk erabili, ondoren berari ere erabiltzeko eskatu. Euskara erabiltzen hasteko modu bat da eta erabilera horri errefortzu positiboak ematen badizkiegu, arro sentituko direnez, euskararekin harremana lantzeko modua ere bada.

Beharrezkoa ikusiz gero, eman azalpenak gaztelaniaz: bereziki une horretan harreman afektiboa lehenetsi behar dela ikusiz gero –gazteak Zerbitzuan eroso eta gustora sentitzeko behar duelako–. Baina gaztelaniazko azalpenak berari bakarrik eman, ez talde osoari.

5.2. Ez daki ondo

Partaideren batek edo batzuek euskaraz ondo ez badakite, azalpenak ematerakoan eta erabilera sustatzerakoan hori kontuan izan.

Lagungarriak izan daitezke:

- Arauak bisualki irudikatzea: idatziz egoteaz gain, eta azalpenak emateaz gain, oinarritzko arauak irudi bidez adieraztea egokia da.
- Azalpenak ematerakoan euskarriak erabiltzea: azalpenekin batera hitzak idaztea edo, hobe, marrazkiak egitea.
- Azalpenak behin baino gehiagotan eta modu ezberdinetan ematea. Eta, horretan ari garenean: mimika asko erabiltzea, nahiko mantso hitz egitea eta ondo ahoskatzea.
- Galdera erduekin jolastea: ulertu ote diguten konturatzeko egokia da galdera erduekin jolastea: galdera itxiak eta galdera irekiak. Euskara erabiltzen hasteko modu ona da, gainera.

Galdera erduekin jolastea

- *Datorren astean graffiti tailerra egingo dugu. Maskarillak ekarri behar dituzue etxetik (eskuarekin ahoa estaltzearen keinua egingo dugu).*
- *Denak ados? Iñigo: Zer ekarri behar da?*
- *Maskarillak!*
- *Bai. Zerbait gehiago bururatzen zaizue?*
- *Arropa zaharra!*
- *Primeran!*

5.3. Ez du euskaraz egin nahi

Komenigarria da jarrera horren oinarrian zer dagoen ulertzea baina horrek ez du gure jokabidea aldatuko.

Jarreraren oinarrian, gehien gehienetan, euskararekiko harreman nahiko eskasa egongo da: ez da euskaraz eroso sentzitzen, komunikazioa oztopatzen diola irudituko zaio, bizipen eta erreferente gutxi ditu, eta abar.

Hori da guk landu behar duguna: euskara erabiltzeko aukerak eskainiz eta horretan lagunduz, euskararekiko harremana garatzen eta hobetzen lagundu nahi diogu.

| | |
|-------------------------------|---|
| <i>No me gusta el euskera</i> | <i>Zer egingo diogu ba! Niri asko gustatzen zait. Ziur zuri ere gustatuko zaizula. Lagunduko dizut eskulanarekin?</i> |
|-------------------------------|---|

5.4. Dinamizatu gabeko uneetan ez dute beraien artean euskaraz egiten

Argi eduki zein den hezitzaileen ardura eta zein den jardueraren helburua:

- **Ardura:** euskara asko eta gustura erabiltzen lagundu nahi diegu.
- **Helburua:** beraien artean euskara erabiltzea ohikoa izan dadin laguntzea eta erabilera hori sentrazio eta bizipen positiboekin lotzea.

Bi horietan zentratu eta horretan ondo lagundu. Beraz: ez epaitu beraien jokabidea eta ez ebaluatu aukeratu ez den helbururik. Dinamizatu gabeko uneetan erdaraz aritzea ez da ez ona ezta txarra ere. Euskaraz egitea nahi badugu, gidan proposatzen diren tresnak erabiliz lagundu horretan.

5.5. Beraien artean gaztelaniaz ari badira nola jokatu?

Laguntzeko prest bagaude, tartean sartu eta elkarrizketa bideratu edo elkarrizketa berri bat sortu. Horretan ari garenean, beharrezkoa ikusten badugu, gure nahia adieraz eta errefortzu positiboak eman. Laburbilduz: Hezitzaile Berritsuak izan.

5.6. Erabilera arautzea egokia da?

Ez da komeni Nerabe Zerbitzuan erabilera arautzea. Euskara asko eta gustura erabiltzen lagundu nahi diegu. Erabilera arautzen badugu, ardura beraien esku uzten dugu baina guk ez diegu laguntzen.

Arau bat jartzen badugu, honakoa argi izan behar dugu:

- Araua ez badute betetzen zein izango da ondorioa?
- Ondorio hori betearazteko prest gaude?
- Zailtasunak ikusiz gero, nola lagunduko diegu?

Hezitzaile berritsu moduan jokatu dugu eta beste hainbat tresna ere erabiliko ditugu, baina nerabeen eta Zerbitzuen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuz, zaila da ondo arautzea.

5.7. Akatsak egiten badituzte zuzendu behar ditugu?

Ez da beharrezkoa zuzentzea eta, gehienetan, komenigarria ere ez. Euskara asko eta gustura erabiltzea nahi dugu baina behin eta berriz zuzentzen baditugu ez diegu horretan laguntzen: komunikazioa mozten diegu eta ez dute segurtasunik lortuko.

Aldiz, asko erabiltzen laguntzen badiegu errazagoa izango da euren hizkera hobetzea: eskolan landuko dute zuzentasuna eta erabilerak berak ere lagunduko die hobetzen.

Hori bai, zerbait adierazteko laguntza behar badute baliabideak eskaini: hiztegia, esaldi ereduak, hizkera informala...

Tarteka zerbait zuzentzea beharrezkoa ikusten badugu, tonua eta zuzentzeko modua zaindu: partaideak gaizki esan duena guk errepikatu baina beraiei ez errepikatu arazi, galdera itxi batean eredu egokia eskaini eta azalpena osatu asmoz zuzen esateko aukera eman, eta abar.

6. ZERBITZUAREKIN LOTURA DUTEN AGENTE EDO ERAGILEEI BEGIRAKO IRIZPIDEAK


- 6.1. Hezitzaileen arteko harremana
- 6.2. Gurasoekin harremana
- 6.3. Beste elkarrekin lankidetzak dinamikak

Nerabe zerbitzua ez da espazio jakin batera mugatzen. Zerbitzuak ikuspegi hezitzailea du, hau da, nerabearen heziketa prozesuan parte hartzen du beste zenbait eragileren lana osatuz, eta eragile horiekin elkarlana sustatuz.

Horri begira, hizkuntzari dagokionez ere herri mailan eredu eta erreferente izateko ahalegina egin behar da, baita espaziotik kanpo ere.

6.1. Hezitzaileen arteko harremana

Oinarrizkoa da hezitzaileen arteko harremana euskara hutsean izatea, gutxienez hezitzaile lanean ari direnean. Nerabe Zerbitzuan giro egokia sortzeko eta nerabeen erabileran eragin ahal izateko, abiapuntua hezitzaileen arteko harremana da. Gogoratu hezitzailea dela erreferente.



| 6.2. Gurasoekin harremana | | |
|----------------------------------|------------------|--|
| Idatzizkoa | Banakoekin | Euskaldunei euskaraz eta euskaraz ez dakitenei gaztelaniaz. |
| | Guraso guztiekin | Elebitan baina euskarari lehentasuna emanaz: lehendabizi euskarazko testuak, letra tamaina handiagoan... |
| Ahozkoa | Banakoekin | <p>Jardueran euskara sustatu nahi denez, harremanak euskaraz sortu badaitezke, ahal dela hizkuntza horretan izatea bideratuko da.</p> <p>Oinarrizko irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gurasoak euskaraz egiten badu, euskaraz egin. - Seme-alabei euskaraz egiten badiete, nahiz eta agian hezitzaileei erdaraz egin, hezitzaileak gurasoari euskaraz. <p>Erabilera sustatzeko irizpideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hasiera batean, hezitzaileek guraso guztiei lehen hitza euskaraz egin. Ez digutela ulertzen esaten digutenekin erdaraz egin baina besteekin harremana euskaraz finkatu (nahiz eta, agian, beraiek erdaraz egin). |
| | Taldean | <p>Gurasoekin bilerak egiten badira edo guraso talde bati azalpen bat eman behar bazaio:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Denek euskara ulertzen badute hezitzaileek guztia euskaraz egin. - Denek ez badute euskara ulertzen: 1- aurkezpena beti euskaraz 2-azalpena ez bada luzea, elebitan 3- azalpena luzea bada, bi talde banatu eta batzuei euskaraz egin eta besteei gaztelaniaz edo aurretik idatziz azalpena prestatu gurasoei banatzeko, eta azalpenaren zati batzuk euskaraz eta beste batzuk erdaraz (ez dakitenek idatzizkoarekin jarraitu ahal izango dute eta galderak egiteko aukera dute). |


6.3. Beste elkarteekin lankidetza dinamikak

Nerabe Zerbitzuko espaziotik kanpo egiten diren ekintzetan beste hainbat pertsonekin interakzioa ematen da edo eman daiteke. Horietan hezitzaileek ahalegindu behar dute ahal duten guztiak euskaraz izan daitezen: nerabeei lagunduz beste pertsona horiekin harremanak euskaraz izan ditzaten (hezitzailea tartean sartuz eta elkarrizketak bideratuz) edota beste horiek pertsona helduak badira eta euskaraz badakite, nerabeei euskaraz egiteko eskatuz. Gogoratu hezitzaileok nerabeentzat erreferente garela, baita hizkuntza kontuetan ere.

Auzoan edo herrian beste elkarte edo zerbitzuekin lankidetza dinamikak antolatzen direnean:

- Ahalegindu harreman guztietan ahalik eta euskara gehien erabiltzen eta lehen hitza behintzat, egin beti euskaraz: teknikariekin, elkarteetako arduradunekin, irakasleekin...
- Idatzizko harremanetan eta hizkuntza paisaian (errotuloak, musika...) lehenetsi euskara.
- Komunikabideei begira ere lehenetsi euskara: prentsaurrekoak euskaraz eman eta gaztelaniaz laburpen bat egin edo idatziz pasa kazetariei, eta abar.

Esparru honetan kokatzen dira: Udala eta Udaleko teknikariak, ikastetxeak, Guraso Elkarteak, komunikabideak, jarduerarekin harremana izan dezaketen beste elkarteak, eta abar.



7. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Euskararen erabilera sustatzeko egindako lanaren jarraipena eta ebaluazioa egiterakoan bi ardatz hauek hartuko dira kontuan:

Hezitzaileen jokabidea: oinarri-oinarrizko ardatza da, berak du garrantzia handiena.

Jarduerak eta tresnak: planifikazioarekin lotutakoa, eguneroko jardunean zer egiten den eta zer hobetu daitekeen ikusteko. Honek, hizkuntzaren erabilera ere (helburuak eta estrategiak) alde aurretik planifikatzea eskatzen du.

Horretaz gain, hirugarren ardatz bat ere kontuan har daiteke: **Nerabeen erabilera** neurtzeko adierazleak. Erabileran abiapuntuko errealitatea zein den eta lorpenik eman ote den ikusteko tresna bat da.

Bi ardatz nagusien adierazleak honakoak dira:

| Hezitzaileen jokabidea | |
|--|---|
| Banakoekin elkarrizketak | Asko sortu ditut? Jardueraren une ezberdinak erabili ditut horretarako? Zailtasunak dituenari laguntzea lortzen dut? |
| Beraien arteko elkarrizketak | Askotan parte hartu dut beraien arteko elkarrizketetan? Erraz lortzen dut elkarrizketetan sartzea? Lortzen dut beraien artean euskaraz egitea une horietan? |
| Hezitzaileen arteko elkarrizketak | Hezitzaileen arteko harreman guztietan euskaraz aritzen gara? Zailtasunik badaukat zeozer euskaraz adierazteko? Hizkera informala menperatzen dut? |

| Erabileran eragiteko jarduerak eta tresnak | | |
|--|---|---|
| Dinamizatutako jarduerak egokitzea | Dinamizatutako jarduera batzuetan jarduera egokitu dugu hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izan dadin? Zein jardueretan? Prozedura erabili dugu? Lortu dugu beraien artean euskaraz aritzea? | |
| Tresna lagungarriak | Eguneroko errutinak | Hizkuntza-errutina berriak proposatu dizkiegu? Une ezberdinetakoak dira? Sistematikoki erabili ditugu? Barneratu dituzte? |
| | Jolasetan hizkuntza-errutinak | Txertatu ditugu hizkuntza-errutinak dinamika eta jolasetan? Guztietan? Edo maiztasun handiarekin? Erraz egiten dugu? |
| | Musika | Erabiltzen ditugu tresna hauek? Zeintzuk? Aldatzen edo garatzen ditugu? Partaideek gustora hartzen dituzte? |
| | Hizkuntza-paisaia | |

| Motibazioa lantzeraz begira, <i>Erabileran eragiten duten faktoreak</i> lantzeraz begirako jarduerak eta tresnak | |
|--|---|
| Faktoreei buruz aritzeko egoerak baliatzea | Egoerak baliatu ditugu Erabileran eragiteko faktoreekin lotutako elkarrizketak sortzeko? Egoerak aurreikusten saiatu gara? Zein egoeretan? Zein faktoreri buruz aritu gara? Lortu dugu mezuak ematea? Lortu dugu mezuak ematea edo horien inguruan egoki hausnartzea? |
| Faktoreak lantzeko izaera ludikoa duten jarduerak egitea | Erabileran eragiten duten faktoreekin lotutako jarduerak egin ditugu? Zein faktoreekin lotuta? Jarduera berriak edo lehen egiten zen bateren bat moldatuta? Lortu dugu faktore horietan eragitea? |
| Haurnasketa oinarri duten jarduerak egitea | Hausnarketa oinarri duten jarduerak programatu ditugu? Zein faktoreekin lotuta? Proposatu dizkiegu? Egin ditugu? Lortu dugu faktore horietan eragitea? |

Hirugarren ardatzaren kasuan, **Nerabeen erabilera neurtzeko adierazleak** honakoak dira:

| | | |
|--|---|--|
| Hezitzaileekin harremana euskaraz da? | A-Hezitzaileekin harremana euskaraz da. | |
| | B-Guztiek ez baina gehienek hezitzaileekin beti euskaraz egiten dute. | |
| | C-Batzuk hezitzaileekin beti euskaraz egiten dute. | |


| | | |
|--|---|--|
| Partaideen artean euskaraz egiten dute hezitzaileok beraiekin elkarrizketatan ari garenean? | A-Beraien artean euskaraz egiten dute gu elkarrizketan gaudenean. | |
| | B-Guztiek ez baina gehienek beraien artean euskaraz egiten dute gu elkarrizketan gaudenean. | |
| | C-Batzuk beraien artean euskaraz egiten dute gu elkarrizketan gaudenean. | |

| | | | |
|--|------------------------------|---|--|
| Partaideen artean euskaraz egiten al dute beraien kabuz ari direnean? | Egoera babestuetan | Beraien artean euskaraz egiten dute egoera babestuetan (jarduerak egokitzen ditugunean). | |
| | | Egoera babestuetan ohikoa da tarte batzuetan beraien artean euskaraz aritzea (jarduerak egokitzen ditugunean). | |
| | Edozein egoera edo tarteetan | Beraien artean euskaraz egiten dute beti. Edota zerbitzuan daudenean ohikoena beraien artean euskaraz aritzea da. | |

Oharra: soilik euskaraz aritzeko ohitura duten eta aritzeko ohitura ez duten nerabe taldeek elkarrekin parte hartzen duten kasuetan betetzekoa

| | | | |
|--|------------------------------|---|--|
| Euskaraz aritzeko ohitura dutenek ohitura ez dutenekin biltzean nola egiten dute? | Egoera babestuetan | Euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean). | |
| | | Gehienek/gehienetan euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean). | |
| | | Batzuk/batzuetan euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean). | |
| | Edozein egoera edo tarteetan | Euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean). | |
| | | Gehienek/gehienetan euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean). | |
| | | Batzuk/batzuetan euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean). | |

Hirugarren ardatza, *Nerabeen erabilera adierazleak izeneko*, egindakoa ebaluatzeko lagungarria izan daiteke, baina baita erabilerari dagokionez argazki moduko bat ateratzeko ere: ikasturte hasieran eta amaieran egin dezakegu bilakaera ikusteko, edo ikasturte ezberdinen arteko aldea ikusteko ere erabil daiteke.



8. ERREFERENTZIAK

Esku artean darabiltzun materialak papereko gida erreferentzia izan nahi du eta, espazio kontuak medio, oinarritzko ideia eta estrategiak biltzeko sortu da. Gida honetan proposatutako helburuak, estrategiak eta dinamikak egiazki Nerabe Zerbitzuan garatu nahi izanez gero, jo ezazu Gaztematikako komunitatera – **komunitatea.gaztematika.eus**–: bertan topatuko dituzu eguneratutako dinamika adibideak, Interneteko euskarazko baliabide zerrenda (marrazki bizidunak, filmak, karaokea....) eta beste hainbat lantresna funtzional.


Gidaren oinarri moduan, hiru argitalpen hauek hartu dira:

- Hezitzaileek asko egin dezakete (Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ttakun Kultur Elkartea, 2007): <http://gaztematika.gipuzkoangazte.eus/eu/-/hezitzaileek-asko-egin-dezakete-eskola-orduz-kanpoko-jardueretan-nerabeen-artean-euskararen-erabilera-sustatzeko>
- Haur eta gazteen jardueretako hezitzaileentzat gida (Arabako Foru Aldundia, 2015): <http://euskaraba.eus/edukiak/uploads/2015/10/haur-eta-gazteen-jardueratarako-hezitzaileentzako-gida.pdf>
- Gu bai hezitzaile berritsuak! Irakasleak ikasleen euskararen erabileran eragiten: http://emangiltza.eus/e-liburuak/Gu_Bai_Hezitzaile_Berritsuak/mobile/index.html

9. ERANSKINAK

Erabileran eragiteko urratsak aplikatzeko tresna

Gida honetako edukiak praktikara eramateko eta jarraipena egiteko urrats zehatzak eta laburrak proposatzen diren hurrengo orrietan.



NERABE ZERBITZUAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN HELBURUAK, ESTRATEGIAK ETA ADIERAZLEAK

Ikasturtea:

Hiru hilekoa:

Erabileraren ikuspegitik zerbitzuko partaideen deskribapena:

| |
|--|
| |
|--|

Aukerako helburuak, estrategiak eta adierazleak hurrengo orrietan daude.

| Erabilera helburua | Estrategiak | Adierazleak |
|--------------------|-------------|-------------|
| | | |

Nori begirako helburua da (zein talde edo kuadrilla kokatzen diren helburu honetan?)

| Erabilera helburua | Estrategiak | Adierazleak |
|--------------------|-------------|-------------|
| | | |

Nori begirako helburua da (zein talde edo kuadrilla kokatzen diren helburu honetan?)

Hizkuntza-ohiturei dagokionez Nerabe Zerbitzuko partaideen ezaugarriak nahiko homogeenak baldin badira, gutxienerako helburu bakarra aukeratzea da egokiena. Partaideen ezaugarriak anitzak direnean, bat baino gehiago aukeratu beharko dira, baina bi baino gehiago ez hartzea gomendatzen dizuegu. Hizkuntza-ohitura ezberdinak dituzten taldeak hainbatetan elkarrekin aritzen badira, helburu bat jarri gutxien erabiltzen dutenei begira eta bestea elkarrekin ari direnean duten harremanari begira. Hizkuntza-ohitura ezberdinak dituzten taldeen artean harremana txikia bada, gutxienerako bi helburu independente aukeratu: bat batzuentzat eta bestea besteentzat.

| Motibazio helburua: landu nahi diren faktoreak | Estrategiak | Adierazleak |
|--|-------------|-------------|
| | | |
| | | |

Euskararen erabilera neurtu eta zerbitzuko partaideen deskribapena egiteko galdetegia

| | | |
|---------------------------------------|--|--|
| Hezitzaileekin harremana euskaraz da? | A-Hezitzaileekin harremana euskaraz da | |
| | B-Guztiek ez baina gehienek hezitzaileekin beti euskaraz egiten dute | |
| | C-Batzuk hezitzaileekin beti euskaraz egiten dute | |

| | | |
|---|--|--|
| Partaideen artean euskaraz egiten dute hezitzaileok beraiekin elkarrizketatan ari garenean? | A-Beraien artean euskaraz egiten dute gu elkarrizketan gaudenean | |
| | B-Guztiek ez baina gehienek beraien artean euskaraz egiten dute gu elkarrizketan gaudenean | |
| | C-Batzuk beraien artean euskaraz egiten dute gu elkarrizketan gaudenean | |

| | | | |
|---|------------------------------|--|--|
| Partaideen artean euskaraz egiten al dute beraien kabuz ari direnean? | Egoera babestuetan | Beraien artean euskaraz egiten dute egoera babestuetan (jarduerak egokitzen ditugunean) | |
| | | Egoera babestuetan, ohikoa da tarte batzuetan beraien artean euskaraz aritzea (jarduerak egokitzen ditugunean) | |
| | Edozein egoera edo tarteetan | Beraien artean euskaraz egiten dute beti. Edota zerbitzuan daudenean ohikoena beraien artean euskaraz aritzea da | |

| | | | |
|---|------------------------------|--|--|
| <i>Oharra: soilik euskaraz aritzeko ohitura duten eta aritzeko ohitura ez duten nerabe taldeek elkarrekin parte hartzen duten kasuetan betetzekoa</i> | | | |
| Euskaraz aritzeko ohitura dutenek ohitura ez dutenekin biltzean nola egiten dute? | Egoera babestuetan | Euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean) | |
| | | Gehienek/gehienetan euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean) | |
| | | Batzuk/batzuetan euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean) | |
| | Edozein egoera edo tarteetan | Euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean) | |
| | | Gehienek/gehienetan euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean) | |
| | | Batzuk/batzuetan euskara mantentzen dute (jarduerak egokitzen ditugunean) | |

Aukerako erabilera helburuak eta estrategiak

| Erabilera Helburua | Estrategiak |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Hezitzaileekin harremana euskaraz izatea. - Partaideen artean euskaraz egitea hezitzaileok beraien elkarrizketan ari garenean. - Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean jarduera babestu edo antolatuetan. - Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean edozein egoera edo tarteetan. - Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea jarduera babestu edo antolatuetan. - Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea edozein egoera edo tarteetan. | <ul style="list-style-type: none"> - Hezitzaile Berritsu moduan: <ul style="list-style-type: none"> - banakoekin elkarrizketa asko sortzea, gure helburua eta nahia azaltzea, laguntza eskaintzea eta ahalegina baloratzea. - beraien arteko elkarrizketa askotan parte hartzea, gure helburua eta nahia azaltzea, laguntza eskaintzea eta ahalegina baloratzea. - Jardueraren uneak eta guneak baliatzea banakoekin elkarrizketak sortzeko edo beraien elkarrizketetan parte hartzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Harrera eta agurra • Jarduera librea • Tailerrak • Jarduera dinamizatuak • ... - Dinamizatutako jarduerak egokitzea beraien kabuz euskara mantentzen laguntzeko edo gure eraginez euskaraz egin dezaten laguntzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Beraien artean hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izatea • Gure eraginez laguntzea • Gure helburua edo nahia azaltzea (aukera ikusten badugu) - Tresna lagungarriak erabiltzea: <ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko errutinak • Dinamika eta jolasetako hizkuntza-errutinak • Girotea (musika, hizkuntza-paisaia...) |

Erabilera helburuak eta erabilitako estrategiak ebaluatzeko adierazleak

| Erabilera helburuen adierazleak | | |
|---|---|---|
| Hezitzaileen jokabidea | Banakoekin elkarrizketak | Asko sortu ditut? Jardueraren une ezberdinak erabili ditut horretarako? Zailtasunak dituenari laguntzea lortzen dut? |
| | Beraien arteko elkarrizketak | Askotan parte hartu dut beraien arteko elkarrizketetan? Erraz lortzen dut elkarrizketetan sartzea? Lortzen dut beraien artean euskaraz egitea une horietan? |
| | Hezitzaileen arteko elkarrizketak | Hezitzaileen arteko harreman guztietan euskaraz aritzen gara? Zailtasunik badaukat zeozer euskaraz adierazteko? Hizkera informala menperatzen dut? |
| Dinamizatutako jarduerak egokitzea | Dinamizatutako jarduera batzuetan jarduera egokitu dugu hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izan dadin? Zein jardueretan? Prozedura erabili dugu? Lortu dugu beraien artean euskaraz aritzea? | |
| Tresna osagarriak | Eguneroko errutinak | Hizkuntza-errutina berriak proposatu dizkiegu? Une ezberdinetakoak dira? Sistematikoki erabili ditugu? Barneratu dituzte? |
| | Jolasetan hizkuntza-errutinak | Txertatu ditugu hizkuntza-errutinak dinamika eta jolasetan? Guztietan? Edo maiztasun handiarekin? Erraz egiten dugu? |
| | Musika | Erabiltzen ditugu tresna hauek? Zeintzuk? Aldatzen edo garatzen ditugu? Partaideek gustora hartzen dituzte? |
| | Hizkuntza-paisaia | |

Aukerako motibazio helburuak (faktoreak), estrategiak eta adierazleak

| Motibazioa lantzen: Erabileran eragiten duten faktoreak | Estrategiak | Adierazleak |
|--|--|--|
| <p>1.-Hizkuntza-gaitasuna 2.-Identitate kolektiboa 3.-Harreman sareetako hizkuntza-arauak 4.-Erreferenteak 5.-Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa 6.-Egoera soziolinguistikoarekiko pertzepzioa 7.-Kontsumo eskaintza 8.-Input mediatikoa 9.-Testuinguru politikoa</p> <p>Kanpoan utzi dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ama hizkuntza: NZtatik ezin da bakoitzaren ama hizkuntzan eragin - Ingurune hurbila: NZ bera inguru hurbilean eragitea da - Jarrerak: beste faktoreetan eraginez eragingo da jarreretan | <p>Hausnarketak sortzeko egoerak baliatzea</p> | <p>Egoerak baliatu ditugu erabileran eragiteko faktoreekin lotutako elkarrizketak sortzeko? Egoerak aurreikusten saiatu gara? Zein egoeretan? Zein faktoreri buruz aritu gara? Lortu dugu mezuak ematea edo horien inguruan egoki hausnartzea?</p> |
| | <p>Izaera ludikoa duten jarduerak</p> | <p>Erabileran eragiten duten faktoreekin lotutako jarduerak egin ditugu? Zein faktoreekin lotuta? Jarduera berriak edo lehen egiten zen bateren bat moldatuta? Lortu dugu faktore horretan eragitea?</p> |
| | <p>Hausnarketa oinarri duten jarduerak</p> | <p>Hausnarketa oinarri duten jarduerak programatu ditugu? Zein faktoreekin lotuta? Proposatu dizkiegu? Egin ditugu? Lortu dugu faktore horietan eragitea?</p> |

